

Herrri Ametsa

IKASTOLA

2022 - 2023 IKASTURTEA



Aurkibidea

Sarrera	3 or.
Agurra	4 or.
Artikulu pedagogikoa	5 or.
Ikasle ohiak	10 or.
Hizpro / DET	13 or.
Agenda 30	14 or.
Berriketan	16 or.
Gure ikasleak	18 or.
Geletako argazkiak	20 or.
Ikastolako langileak	34 or.
Zer berri?	36 or.
Komikiak	42 or.
Urteko ekintzak	43 or.



Herri Ametsa

IKASTOLA

Familia agurgarriak:

Aurten guraso batzordean izan ditugun aldaketak direla eta etapa berri bati ekingo diogu, eta hori dela eta, ikastolako aldizkarian, zuei, gurasoei, honen guztiaren berri emateko aukera luzatu digute.

Lanerako gogoz eta gauzak modu eraginkorrago batean egiteko talde polita osatu dugu. **Hala ere, gure taldea handitzea da helburua.** Gurasook esateko asko dugula badakigu; ideia berriak, gauzak hobetzeko proposamenak, gure seme-alabekin zerikusia duten kontuen inguruko zalantzak... Garbi dugu guraso eta ikastolako parte diren beste taldeen artean (administrazioko langileak, irakasleak, jangelako, autobuseko eta garbiketako langileak, zuzendaritza eta beste batzordeak) komunikazio zubiak eraiki behar ditugula, informazioa jaso nahi duenak aukera hori izan dezan, eta guztiok elkarlanean ikastolaren alde lan egin ahal izateko.

Gure seme-alaben hezkuntza kalitateak arduratzen gaitu; dauzkaten hizkuntza ohiturak, pandemiak beraien gan utzi dituen arrastoak, orain datorren Hezkuntza lege berria...oso gai garrantzitsuak dira eta gurasoek ikastolako partaide garen aldetik, gure aletxoak jar dezakegula uste dugu, bakoitzak ahal duena eginez, ahal duenean lagunduz.

Argi utzi nahi dizuegu **gure taldea foro irekia dela**, eta gurekin bat egiteko modu ezberdinak daudela: hila-betean behin egiten ditugun bileretara etor zaitezke, edo bertaratzea zaila egiten bazaizue, guri mezuak bidaltzeko aukera duzue, gai zehatz bat lantzea nahi baduzue, proposamen bat egin nahi badiguzue edo dena delakoa. Norbait edozein momentutan gurekin moduren batean bat egin nahi badu edo zerbait komunikatu nahi badigu, hauxe da gure helbide elektronikoa: gurasobatzordea@herriametsa.com

Besterik gabe, jaso ezazue besarkada bat guraso batzordearen partetik, eta ekin diezaiegun guztion artean aurretik datozkigun erronka guztiei!

Estimadas familias:

Tras algunos cambios en los últimos meses, la comisión de madres y padres de Herri Ametsa (Guraso batzordea) inicia una nueva etapa. Hemos creado un bonito grupo con muchas ganas de trabajar y de colaborar con la ikastola, porque pensamos que tenemos mucho que decir y que aportar.

Aun así nos gustaría que este **grupo** fuese **más amplio**.

Nos preocupa la calidad de la educación de nuestros hijos e hijas, así como sus costumbres lingüísticas, las secuelas que la pandemia ha dejado en ellos, la nueva Ley de Educación... Son temas importantes y sabemos que a ti también te lo parecen.

Por eso te invitamos a participar, con el objetivo de que cada uno aporte su grano de arena en función de sus posibilidades.

Guraso Batzordea es un **grupo abierto** y puedes participar de diferentes maneras: acudiendo a las reuniones mensuales o planteando temas concretos para analizar en la comisión.

Podéis poneros en contacto con nosotr@s mediante el siguiente correo electrónico: gurasobatzordea@herriametsa.com

Besarkada bat denoi eta animatu parte hartzera!

Agurrak



*Eskerrik asko
Josean!*

Mila esker urte guzti hauetan Herri Ametsako familiaren parte izateagatik. Onena opa dizugu datorkizun etapa berri honetarako!

Izugarri gozatu!!

 URKIDE
fontanería

agua, gas y calefacción

fontaneriaurkide@gmail.com
tel.: 628632568
606908034

Artikulu pedagogikoak

IKASTEN IKASTEA

Iturria: **APRENDER A APRENDER (Héctor Ruiz Martín)**


Joan den ikasturtean, Ikastolen Elkarteak antolatutako praktika onei buruzko jardunaldietan, Hector Ruiz Martín zientzialari eta neurobiologoaren hitzaldia entzun genuen. International Science Teaching Foundationeko zuzendariak, besteak beste, "Aprender a aprender" liburuan mamitzen dituen ideien berri eman zigun.

Ikasten ikastea funtsezkoa da ikasketa prozesuan arrakasta lortzeko. Zientziak jakin badaki gure burmuinak ikasten duena hobeto gogoratzeko egin behar duena zer den. Horregatik, Ruiz Martínek hainbat aholku bildu ditu ikasten dugunean egiten dugun ahalegina benetakoa eta eraginkorra izan dadin. Haren hitzak geurera ekartzea bururatu zaigu, modu praktikoan, ikaskuntza-prozesu arrakastatsurako garrantzitsuak diren gomendioak bilduz.

1. Ikasteko... LOTU!

Ezagutza berri bat gordetzeko, gure burmuinak aurretik dakigun zerbaitekin lotu behar du ezagutza hori. Gai bati buruzko zenbat eta ezagutza gehiago izan, errazagoa da ezaguera berriak jaso eta lotzea; hortaz, errazagoa izango zaigu hari buruz ikastea. Horrez gain, ikasten ari garenari buruz pentsatzea askoz ere eraginkorragoa da errepikapen hutsa baino. Horregatik, hausnartzen eta ideiei zentzua ematen saiatzen bagara, hobeto ikasiko dugu. Hona hemen zenbait aholku:

- Ikasten ari zaren horri buruzko ideia orokorraz jabetu.
- Irakurtzen duzunean, gelditu. Jarraian, azalpenak eman irakurri berri duzunari buruz.
- Konplexua den zerbait ulertzen saiatzen zarenean, haren antzekoak diren gauzetan pentsatu.
- Pentsatu ikasten ari zaren horri buruzko irudietan.
- Adibideak jarri.
- Ulertu duzunaren laburpena egin zure hitzak erabiliz.
- Kontzeptu-mapa bat sortu.
- Hitz berriak ikasteko, gogora itzazu antzekoak diren edo ezagutzen dituzun hitz eta esapideak.
- Kategoria, objektu, ezaugarri edo prozesu-zerrenda bat gogoratu behar baduzu, sortu hitz edo esaldiak haiekin.



APRENDER A APRENDER (Héctor Ruiz Martín)

En esta guía para jóvenes estudiantes publicada por el científico y neurobiólogo Héctor Ruiz Martín, podemos encontrar varios consejos para que nuestro cerebro aprenda de manera más eficaz. A continuación, podréis leer algunos de ellos:

1. Para aprender... ¡RELACIONA!

- Hazte una idea general de lo que estudiarás.
- Cuando leas, ve preparándote y explicándote lo que acabas de leer.
- Cuando trates de entender algo complejo, piensa en otras cosas que se le parezcan.
- Piensa en imágenes o ejemplos de lo que estás aprendiendo.
- Haz un resumen o mapa conceptos de lo entendido con tus propias palabras.

2. Para aprender... ¡RECUERDA!

- Repasa por medio de la evocación, no leyendo.
- Crea resúmenes o mapas conceptuales a partir de tu memoria.
- Explica a alguien lo que has aprendido.
- Prepara preguntas para ponerte a prueba.
- Revisa tus respuestas tras la evocación.
- Identifica tus puntos débiles y repásalos.
- No eches mano de tus apuntes hasta haberlo intentado.

2. Ikasteko... GOGORA EKARRI!

Ikasketa-prozesua ulertzeko, bere baitan hiru pauso jasotzen dituela ikustea funtsezkoa da:

- Zerbaitetan arreta jarri eta memorian **KODETZEA**.
- Ikasitakoa denbora batez memorian **BILTZEA**.
- Memorian jasota dagoena **GOGORA EKARTZEA**.

Ikasten ari garen hori gogora ekartzen dugunean, gure memorian finkatzen dugu behin eta berriz. Beraz, nolabait, gure buruaren ebaluazioa egiten dugu eta gure buru-muinak ezagutzak indartu egiten ditu.

Hona hemen hainbat aholku ezagutzak gogora ekartzeko:

- Erreparasaten duzunean, ez berrirakurri, gogora ekarri ikasten ari zarena.
- Laburpenak eta mapa kontzeptualak sortu, baina ez berrirakurritz, kontzeptuak gogora ekarriz baizik.
- Norbaiti azaldu ikasi duzuna.
- Galderak prestatu eta zure burua probatu.
- Ahultasunak identifikatu eta horietan eragin, horiek erreparatu.
- Zerbait gogora ekartzen saiatzen zarenean, eta gogoratzen ez duzunean, ez begiratu berehala, saiatu berriz.
- Ez erreparatu ariketa bat nola egin zenuen, egizu berriz.

3. Ikasteko... AHAZTU!

Jakina da: zerbait ikasi orduko, hura ahazten hasten gara berehala. Ikasteko dugun erak, ordea, eragina izan dezake ahazte-prozesuan. Ruiz Martinen arabera, zerbait modu eraginkorrean ikasteko, hura ahaztea baliagarria izan daiteke. Izan ere, ahaztua edo erdi ahaztua dugun zerbait erreparatu edo praktikan jartzen dugunean, ahaztu gabe daukagunean baino hobeto finkatzen dugu. Beraz, planifikazio egokia da guztiaren giltzarria.



- Ikasketari eskainiko diozun denbora hainbat saiotan zatitu.
- Saioak denboran banatu.
- Ez "gainikasi".
- Ikasketak egunean eduki, atzerapenak ekidin.
- Lo egin.
- Gogoratu: hobe da lau egunetan ordubetez ikastea, egun bakarrean lau orduz ikastea baino.


4. Ikasteko... ARRETA IPINI!

Berria den zerbait ikasteko, inguruan daukagun informazioak gure burmuinera iritsi behar du zentzumenen bitartez, hau da, hauteman egin behar dugu. Baina zerbait hautematea ez da nahikoa hura ikasteko.

Ruiz Martinek dio burmuinean bi memoria mota aurki ditzakegula: lan-memoria eta epe-luzeko memoria. Lan-memoriaren bitartez, zerbait gogoratu edo irudikatu dezakegu, eta baita zerbaiten inguruan arazoitu ere. Gure ezagutzen eta informazio berriaren arteko loturak egiten ditugun lekua ere bada lan-memoria. Beraz, informazio berria epe-luzeko memoriara iritsiko bada, lehenik, lan-memoriatik pasako da.

Lan-memoria baliabide mugatua da, ordea. Hala, une bakoitzean informazio kopuru txikia erabil dezake soilik. Horregatik, gainkargarik nahi ez badugu, oso garrantzitsua da ikasten ari garen bitartean, lan-memoriaren karga kontrolpean izatea. Horretan arretak lagunduko digu; izan ere, mekanismo horrek, lan-memorian uneoro sartu eta ateratzen den informazioa kontrolatzen du. Zoritxarrez, arretak ez du gure nahien arabera funtzionatzen eta ezin diegu inguruan ditugun hainbat estimuluri entzungor egin. Hori dela eta, gomendagarria da gure arreta galarazi dezaketen faktoreak ingurutik kentzen saiatzea.

- Ikasteko leku lasaia aukeratu.
- Isiltasuna bilatu.
- Sakelakoa gorde.
- Zure ingurukoei adierazi ikasten ari zarela eta ez molestatzeko.



- Ikasketa eta deskantsua konbinatzen dituen ikasketa-errutina ezarri.
- Deskantsu-uneak erlaxatzeko erabili.
- Konplexua den zerbait ikasteko, pixkanaka aurreratu, kontzeptu sinpleenetatik hasi eta haien gainean eraikiz.
- Pausoz pauso aritu eta, beharra izanez gero, pausoak idatzi.
- Manipula daitezkeen irudikapenak zein irudi grafikoak erabili karga kognitibo murrizteko, baita testuak laguntzen dituzten bideo zein audioak ere.

5. Ikasteko... KONFIANTZA IZAN!

Zerbait ikasi ahal izateko, ezinbestekoa da egin dezakegula sinestea. Ikas-erronka baten aurrean, pentsamolde egokia izatea da gakoa:

- Jakingai baten aurrean daukazun gaitasuna moldagarria da, alda daiteke.
- Akatsak egitea logikoa da eta egin egiten dira ikasketa-prozesuan. Haiengandik ikasi.
- Akatsa eginez gero, jarraitu.
- Ez arretarik galdu zure ikasketa-jarduerari buruzko pentsamendu ezkorrekin.
- Arriskatu, saiatu, proba egin.
- Zerbaitetan ona izateko, ahalegindu behar zarela sinetsi.
- Erronkek eta kritikek motiba zaitzaten saiatu.
- Nabarmentzen diren pertsonengandik ikasi, inspira zaitzatela.
- Laguntza eskatu gehiago eta hobeto ikasteko.

6. Ikasteko... ELKARLANEAN ARITU!

Ongi dakigun moduan, gure burmuinak esperientziatik ikasten du. Esperientzia horiek inguruko pertsonekin ditugun interakzioez osatzen dira hein batean. Egunean zehar ikasten ditugun gauza gehienak besteekin partekatutako esperientzietan dute abiapuntua.

Bestalde, Ruiz Martinek dio irakaskuntza dela ikaskuntzarekin zuzenean lotuta dagoen giza-interakziorik garrantzitsuenetako bat. Ikaskuntza finkatzeko modurik onenetakoa da besteei irakastea, hainbat arrazoiengatik:

- Irakasten dugunean, jakintza hori gure burmuinean finkatzen dugu, hura gogora ekartzen eta azaltzen ari garelako.
- Norbaiti dakiguna irakasteak, askotan, kontzeptua hainbat modutara azaltzera eramaten gaitu. Hortaz, lotura berriak egiten ditugu.
- Irakasten dugunean, gure ahulgunez jabe gaitzake.
- Entzuleek galderak egin diezazkigukete eta, horiek

3. Para aprender... ¡OLVIDA!

- Distribuye el tiempo de estudio en varias sesiones.
- Mejor no sobreestudies.
- Entrelaza la práctica.
- Planifica las sesiones de estudio.
- Lleva tus tareas al día.
- Usa la evocación para repasar.
- Duerme.

4. Para aprender... ¡CÉNTRATE!

- Reduce los posibles distractores de tu entorno de estudio.
- Organiza tus sesiones de estudio.
- Dosifica el aprendizaje.
- Utiliza distintos canales de aprendizaje.

5. Para aprender... ¡CONFÍA!

- Cree en ti mismo.
- No atribuyas tus éxitos y fracasos a causa fijas o incontrolables.
- Interpreta los errores y fracasos correctamente.
- Piensa en el talento solo como una ventaja.
- Utiliza técnicas para regular tus emociones.

6. Para aprender... ¡COLABORA!

- Practica la evocación en equipo.
- Busca ayuda si tienes dificultades.
- Implícate en los debates y tareas en grupo.



erantzuten saiatzean, lotura berriak egin ditzakegu gure jakintzen artean.

Beste persona batzuekin izan ditzakegun mahai-inguru edo eztabaidak ikasteko egoera ezin hobekak izan daitezke, ikuspuntu ezberdinen bitartez, gure ikuspegia aberasaten baitugu. Hala, helburu berberak dituzten lagunekin ikastea ikaskuntzarako aberasgarria da. Era berean, garrantzitsua da guztiek helburu bera izateaz gain, lankidetzarako prestutasuna adieraztea eta, bidean modu gardena, proaktibo eta adeitsuan komunikatzea.

INNOVAMAT HERRI AMETSAN

Innovamat gaitasunetan eta manipulazioan oinarritutako ikasketa-proposamen bat da, matematika-ikasgela eraldatzen duena. 2017an hasi ziren lehen pausuak ematen eta urtetik urtera zabaltzen joan ondoren, jadanik 1200 ikastetxe baino gehiago gara haiekin elkarlanean ari garenak. Izan ere, aurtengo ikasturtean, Herri Ametsa ikastolak apustu egin dugu Haur Hezkuntzako 3, 4, 5 eta Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3 mailatan.

Aurreko ikasturtean zehar bertako profesionalekin formatzen/prestakuntza jasotzen aritu ginen eta aurten ikasgelan haurrekin inplementatzen hasi garenetik, gure bertako aholkulariarekin etengabeko harreman eta elkarlanean jarraitzen dugu, egunerokotasunean sortzen zaizkigun zalantzak partekatzeko edota ikasleengan bizitzen ari garen aldaketa eta garapenen berri eman ahal izateko.

Esan bezala, matematika lantzen duen kalitatezko proposamena da, haurren adinera erabat egokitutakoak, egunerokotasunean topatzen ditugun egoerei aurre egiten diotenak eta haientzat modu dibertigarri batean aurkeztuta daudenak.

Haur Hezkuntzan gure lagun *Krikitarren* laguntza izaten dugu, haiek proposaturiko erronka matematikoei au-

re egiteko, arrazoiketa matematikorako oinarritzkoa den sena garatzeko eta material manipulatioa esperimentatuz, ikasketa esanguratsuak eraikitzeke.

Alde batetik, ezagutza matematikoa eraikitzeke taldeko saioak egiten ditugu **tailerren** bidez. Eta bestetik, lan autonomoa bultzatu eta garatzeko, diziplinarteko erronka matematikoen eskaintza dugu jolas sinbolikoaren, artearen, eraikuntzen eta Innovamateko app-aren **espazioen** bidez; haur bakoitzaren erritmora egokitzen direnak.

Lehen Hezkuntzan, berriz, *Bmatharrak* ditugu bide-lagun, Innovamat formulak aplikatzea eta biderkatzeke taulak buruz ikastea baino askoz ere gehiago dela erakusten digutenak. Haei esker, problemak ebatziz jakinmina piztu, manipulazioan oinarrituta arrazoiketa abstraktua eraiki eta matematikak mundua interpretatzeko lengoaia gisa erabiltzen ikasiko dugu.

Saioen egitura hiru zatitan banatu ohi da: testuinguruan kokatzeko planteamendu bat egoten da, ondoren solaserako eta aurkikuntzarako tarteak (korapiloa) eta azkenik, ikasitakoa erregistratzeko amaierako jarduera izaten dugu. Landutakoa erregistratzeko koadernoan zein automatikoki egokitzen den app-aren bidez egiten dugu.



Oso gustura ari gara proiektu honekin martxan, bai haurrak eta baita helduok ere, primerako baliabidea dela uste dugu eta oso aberasgarria izaten ari da denontzat. Ziur gaude hala jarraituko dugula!

INNOVAMAT EN HERRI AMETSA

Innovamat es una propuesta de aprendizaje basada en competencias y manipulación que transforma el aula y la asignatura de Matemáticas. Fue en 2017 cuando comenzaron a dar sus primeros pasos y tras varios años de experiencia, ya son más de 1200 los centros educativos que colaboran con ellos. De hecho, este curso, la ikastola Herri Ametsa ha apostado por esta metodología en 3, 4, 5 de Infantil y 1, 2 y 3 de Primaria.

Se trata, como decimos, de una propuesta que trabaja las matemáticas totalmente adaptadas a la edad de los niños, afrontando situaciones que se encuentran en el día a día y que están presentadas de una manera divertida y atractiva para ellos.

En Educación Infantil cuentan con la ayuda de los *Kriktar* para solventar los retos que se proponen, y así,

desarrollar el instinto básico para el razonamiento matemático y la construcción del aprendizaje significativo experimentando con material manipulativo.

Por un lado, para construir el conocimiento matemático, realizan sesiones grupales a través de talleres. Y por otro, con el fin de impulsar y desarrollar el trabajo autónomo, cuentan con retos matemáticos interdisciplinares a través del juego simbólico, el arte, las construcciones y los espacios de la app de Innovamat, que se adaptan al ritmo de cada niño.

En Primaria, en cambio, de la mano de los *Bmatht*, descubrirán que la disciplina matemática va más allá de aplicar fórmulas y memorizar tablas de multiplicar. Esto les permitirá despertar su curiosidad a través de la resolución de problemas, construcción del razonamiento abstracto y el aprendizaje matemático como un lenguaje para entender e interpretar el mundo.

La estructura de las sesiones se divide en tres partes: hay un planteamiento de contextualización, a continuación, un espacio para la conversación y el descubrimiento y, por último, la actividad final para integrar lo aprendido. Todo lo adquirido a lo largo de cada sesión es registrado en los cuadernos y a través de la aplicación.

Para todo ello, el profesorado ha sido formado en esta metodología y sigue en constante contacto y asesoramiento con los expertos de dicha materia.

Por ahora, el proyecto está siendo muy positivo y enriquecedor para todos, tanto para el alumnado como para el profesorado. Por ello, viendo los óptimos resultados, seguirán trabajando en ello ya que consideran que es un recurso excelente para el desarrollo de la competencia matemática.



Gaztañaga Etxegintza, s.l.

Tlf. 943 45 67 35 / 656 79 00 48

info@gaztañagasl.com

www.gaztañagasl.com

Ikasle ohiak

ANA BAZ FLORO //

1. Ana, Herri Ametsako ikasle-ohia zara. Zer oroitzen duzu gure ikastolan egindako ibilbideaz? Kontatuko al zeniguke pasadizoren bat?

Gogoratu, gauza asko gogoratzen ditut, haur-eskola garaiko oroitzapenak ere baditut, pentsa! Irakasle eta ikaskide askorekin gogoratzen naiz, baita jolasgariaz eta jolasteko genuen espazio zabal harekin ere, eta klasera itzultzeko "txirrin" hura ondo gogoratzen dut oraindik, azken hori ez da hain oroitzapen atsegina, kar-kar! Oroitzapen politenak ikastola inguruko parajeenak dira, zelaian, farora egiten ginituen ibilbideak... beste gauza batzuen artean, askok natura maitatzen ikasi genuela pentsatu dut beti.

2. Nolakoa zen garai hartako Ana? Asko aldatu zarela esango zenuke?

Buff... Kar-kar! Bueno, esentzian berdintsua naizela esan dezakedan arren, aldatu naiz, bai. Oso lotsatia nintzen, inozo samarra, alai... bizitzako gertaerek aldarazi naute, asko bezala, baino urte haietako Anaz asko dut oraindik ere.

3. Zenbat denbora pasa da ikastola utzi zenuenetik? Zertan aritu zara urteotan?

Horretan pentsatzen jarrita, urteak aurrera nola doazen konturatzen naiz, badira batzuk dagoeneko. 1995ean orduko 8. mailan nengoen, beraz, badira 27 urte atera nintzela! Formakuntzari dagokionez, magisteritza ikasketak egin nituen, Donostian lehenengo (praktikak ikastolan egin nituelarik) eta Salamancan ondoren. Magisteritza bukatzean, psikologia ikasketak burutu nituen eta, horiek amaituta, sexologiako formakuntzarekin hasi nintzen. Lanari dagokionez, besteren artean, hamar urtez ibili naiz Gipuzkoako *Gizakia Helburun*, talde, familia eta bikote-terapeuta moduan; azken urteetan klinika pribatuan nabil, Zarautzen eta Gasteizen, sexologo eta psikologo moduan.

4. Beraz, gurean egin zenituen praktikak. Nola bizi izan zenuen ikastola beste aldetik, irakaslearen ikuspuntutik, alegia?

Oso oroitzapen politak ditut, asko gozatu nuen. Batetik, diotzun bezala, ikastola beste alde batetik bizitzeko aukera izan nuelako, oso bitxia egiten zitzaidan nire irakasle izan zirenekin atsedendian kafea hartzea, adibidez. Bestetik, praktikeetan nirekin batera aritu ziren beste ikasle ohiekin bizitakoaz ere oso oroitzapen onak gordetzen ditut. Oso aukera polita izan zen ikastolan praktikak egitea.



5. Zer da zure lanbidetik gustukoena? Zerk betetzen zaitu gehien?

Pribilegio bat iruditzen zait hain gustoko dudana lanbidean lan egiteko aukera izatea. Hunkitzen nau jendeak bere hobetze prozesuan egiten duen lana ikusteak, eta egunetik egunera hobeto sentitzen direla entzuteak, haien harremanak nola hobetzen diren somatzeak, askeago eta pozik sentitzen direla jakiteak... Esan bezala, prozesu horretan bidelagun izatea pribilegio bat da niretzat.

6. Amaitzeko, Ana, euskarak zer leku dauka gaur egun zure bizitzan?

Egunerokotasuneko, bai lanean baita arlo pertsonalean ere.

Gurasoak erdaldunak diren arren, ikastolan matrikulatzeko hautua argi izan zuten, hein handi batean euskaraz heziak izan gintzen desio zutelako; ahizpa eta biok oso eskertuak gaude horregatik. Ikastolak gure euskalduntzean egin duen lana ere azpimarratu nahiko nuke... Askok erraz jotzen genuen erdaraz hitz egitera, eta irakasle askok euskaraz mintza gintzen behin eta berriz eskatzeak eragina izango zuen gugan, ziur!

Ana terminó su andadura en la Ikastola hace ya 27 años, cuando en 1995 terminó 8º de la Educación General Básica o EGB. Dice conservar mucho de aquella Ana tímida y alegre que, tras estudiar magisterio en Donostia, cursó la carrera de psicología y se formó en sexología. En cuanto a su andadura profesional, destaca los diez años que ha dedicado a Proyecto Hombre, como terapeuta familiar y de pareja. Estos últimos años los ha pasado en el sector privado, trabajando como psicóloga y sexóloga.

De la ikastola, Ana dice recordar muchas cosas, incluso de su época en educación infantil. Se acuerda de muchos alumnos y profesores, de los recreos y del espacio para jugar. Recuerda el campo y las caminatas al faro; cree que allí aprendieron muchos a amar la naturaleza. Ana hizo las prácticas de magisterio con nosotros, por lo que pudo conocer la ikastola desde el otro lado, el lado del profesorado. Fue curioso para ella compartir cafés con quienes fueron sus maestras; también se acuerda de los ex-alumnos que hicieron las prácticas junto a ella.

En cuanto a su profesión, a Ana le parece un privilegio poder trabajar en aquello que tanto le gusta. Le emociona ver cómo trabaja la gente en su proceso de mejora, escuchar que se sienten mejor cada día y saber que sus relaciones mejoran, que se sienten más libres y felices.

En lo que ese refiere a nuestra lengua, Ana destaca lo agradecidas que están tanto ella como su hermana a sus padres, que no hablando euskera, las matricularon en la ikastola. Piensa que la ikastola hizo un gran trabajo en su euskaldunización y piensa que, seguro, algo tuvo que ver que los profesores les insistieran una y otra vez para que hablaran en euskera.

XABIER MUJICA //

Urteak pasa dira ikastola amaitu zenuenetik. Zertan aritu zara urte hauetan?

Ikastola utzi eta Barandiaran Lizeotik pasa ondoren, Arkitektura ikasi nuen Donostiako EHU, karrerako bi urte Las Palmasen eta Lisboan eman nituen arren. Unibertsitatea amaituta Bruselako arkitektura eta eszenografia estudio batean hilabete batzuek lanean aritu ondoren, etxera itzuli eta Ikuskizunetarako jantzien inguruko goi mailako heziketa ziklo bat egitea erabaki nuen. Geroztik, batik bat, dantzarako jantzigiak diseinatu eta ekoizten egiten dut lan, eszenografia batzuk ere diseinatzen ditudan arren. 2017 geroztik Jaiotz Osa dantzariarekin batera OSA+MUJICA dantza konpainia zuzentzen dut.



Eszenografia eta jantzi diseinatzaile lanetan zabiltzala badakigu. Lan ezberdina da. Zein da zure eguneroko jarduna?

Lan ezberdina izateaz gain, nolabait esatearren, ez da lan monotono bat, egunetik egunera asko aldatzen da beharren arabera. Aurretik aipatu moduan bi lan ildo nagusitan bana daiteke nire jarduna. Jantzi eta eszenografiari dagokienez, diseinutik ekoizpenera dena nik egiten dudanez, aste batzuetan inspirazioak eta materialak bilatzen eta marrazten pasa ditzaket egunak eta beste aste batzuetan ordea patrioiak egiten eta jantziak josten aritzen naiz ordu luzez. OSA+MUJICA konpainiari lotutako lana berriz, sor-kuntza lanaz izateaz gain, zoritxarrez, ordenagailu ordu asko egin behar izaten ditugu, mailak idatzi, kontuak egin, emanaldietarako bidaia eta ostatuak bilatu...

Nola hasi zinen mundu honetan? Zeintzuk izan ziren zure lehen urratsak?

Txikitatik erreparatu izan diot inguruko jendearen janzkerari; gerora, nerabezarotan modarekiko interesa piztu zitzaidan. Batxilergoa amaitzean arkitektura ikastea hautatu nuen arren, hirugarren mailan tela batzuk erosi eta eskuz josten hasi nintzen. Geroago josteko makina bat erosi nuen eta gutxi gorabehera garai berean dantza eta antzerki mundura gerturatzeko hasi nintzen. Unibertsitatea amaitu nuenerako argi nuen eszenografia eta jantzigintza munduan murgildu nahi nuela eta hori izan zen Bruselan arkitektura eta eszenografia

uztartzen zituen lantegi hori aukeratzeko arrazoia. Handik itzultzean arkitekto moduan lanik ez zegoenez, gurasoek beste zerbait ikasteko proposatu zidaten, eta horrela iritsi nintzen Ikuskizunetarako jantzien ziklora.

OSA+MUJICA, dantzan eta ikus entzuneko artean oinarritzen den proiektua sortu duzuela ikusi dugu. Konta iezaguzu, zertan datza?

OSA+MUJICA batez ere dantza garaikideko konpainia bat da, Jaiotz Osa dantzariak eta biok 2017an sortua. Hainbat dantza lan sortu ditugu, bai antzokirako eta baita kalerako ere, eta batez ere, Euskal Herriko eta estatuko antzoki eta jaialdietan aritu gara. Lan hauek www.osamujika.com webgunean dituzue

ikusgai. Ikus entzuneko arteari dagokionez, batez ere, kolaborazioen bitartez lantzen dugun esparru bat da, besteak beste, Gartxot Unsain musikariaren GHAU proiektuaren noraezoso diskoko abestien bideoen zuzendaritza eta artea (dramaturgia, jantziak, koerografia...) guregain hartu ditugu. Gure lan guztiak [osa_mujika](https://www.instagram.com/osa_mujika) instagramean jarrai ditzakezue.

Zer ematen dizute arte eszenikoek?

Sortzeko askatasuna eta gizarte nahiz barne gatazken inguruan hausnartzeko tartea. Marrazketa librean berezko abilezia ez dudana arren, beti gustatu izan zait espazio eta objektuak imajinatu eta paperean irudikatzea, hein handi batean, hori izan zen arkitektura ikasteko arrazoia. Arte es-



zenikoak baina askatasun handiagoa ematen dute, ez dira hainbeste lege bete behar, ez da bezeroak nahi duenean pentsatu behar... gainera, espazio eta objektuak sortzeaz gain, landu nahi dituzun gaiak jorra ditzakezu, hausnarketa sakonak ahalbideratuz.

Ikastolatik ikusi zaitugu azken boladan, zer iradokitzen dizu Herri Ametsak? Eszenatoki egokia iruditzen al zaizu artearekin loturiko proiektuak aurrera eramateko?

Irailean Bueltaxka izeneko ez-ohiko espazioetarako lana aurkeztu genuen Biarritzen, eta pieza grabatzeko toki bila ikastolako espazioez oroitu nintzen. Zuzendaritzarekin hitz egin ondoren, grabaketa frontoi alboko futbol zelaian egitea erabaki genuen, eta oso pozik gaude emaitzarekin. Edozein gune da egokia artearekin loturiko proiektuak aurrera eramateko, are gehiago ikastola edo beste edozein ikasketa gune. Artea gure bizitzan txertatu behar dela deritzot, norberaren kontzientzia hartu, eta aurretik aipatu moduan, barne zein gizarte gatazken inguruko hausnarketa sakonak bultzatu.

Ikastolara-garaira itzulita, nola gogoratzen dituzu urte haiek?

Nire buruan ikastolako bizipenak kristalezko burbuila moduko batean daude. Uste dut oroitzen onak gailentzen direnez, idealizatua dudala garai hura. Mendian, naturarekin kontaktuan, lagunekin, heldutasuneko betebeharririk gabe...

Garai hartako oroitzapenak izango dituzu, ziur. Bururazten al zaizu kontu diezagukezun bizipenen bat?

Oroitzapen asko ditut, eta errepassoa eginda ondorengo hau aipatu nahiko nuke, aldarrikapen modura. Gaur egun ez dakit, baina bere garaian, euskararen egunean 2.DBHko ikasleek irakasleen kontra jokatzeko zuten futbol eta briletean. Garai hartarako hainbat neskek parte hartua zuten futbol partidetan, baina briletean ez zen inoiz mutilik izan. Gure urtea heltzean beste bi ikaskide mutilekin batera briletean izen eman genuen baina eguna iritsi zenean irakasle batek ez zigun parte hartzen utzi. Urteak igaro dira baina duela aste batzuk gertatu izan balitz bezala gogoratzen dut. Pentsatu nahi dut garaiak aldatu direla.

Bukatzeko, zer gomendatuko zenioke, etorkizunean artearen inguruan bidea egin nahi duen ikasle bati?

Benetan artearen inguruan bidea egin nahi badu, saiatu dadila. Arte diziplina ugari ezagutzera gonbidatuko nuke, joan dadila zinera, bisita ditzala museoak, antzokitan egiten dena ikus dezala, irakur ditzala liburuak... Ez da bide erraza, lan asko egin beharra dago, baina saiatu ezkeror, arteaz ere bizi daitekela esan nahiko nioke.

Mila esker zure denbora eskaintzeagatik. Zorterik onena opa dizugu.

Tras acabar la ikastola y pasar por el Lizeo Barandiaran, Xabier cursó Arquitectura en la UPV de Donostia, pasando dos años de la carrera en Las Palmas y Lisboa. Terminada la universidad, después de haber estado unos meses trabajando en un estudio de arquitectura y escenografía en Bruselas, decidió volver y realizar un ciclo formativo de grado superior sobre vestuario para espectáculos. Desde entonces se dedica principalmente al diseño y producción de vestuario de baile, así como a la creación de algunas coreografías. Asimismo, desde 2017 dirige, junto al bailarín Jaiotz Osa, la compañía de danza contemporánea OSA+MUJIKA.

De pequeño ya se fijaba en la indumentaria de la gente que lo rodeaba, y años más tarde, en la adolescencia, se interesó por la moda. Aunque al acabar el bachillerato eligió estudiar arquitectura, en el tercer curso compró unas telas y empezó a coser a mano. Más tarde compró una máquina de coser y al mismo tiempo empezó a acercarse al mundo de la danza y el teatro. Para cuando acabó la carrera universitaria supo que quería adentrarse en el mundo de la escenografía y la confección.

Xabier considera las artes escénicas como un espacio para la libertad de creación y reflexión sobre los conflictos sociales e individuales, un lugar donde no hay que cumplir tantas leyes, ni pensar tanto en lo que busca el cliente, sino una oportunidad para trabajar infinidad de temas y reflexiones profundas. Cree que es interesante integrar el arte en nuestras vidas ya que es un medio para impulsar e indagar en el individuo como en la sociedad.

Xabier eucuerda los años de la ikastola como en una especie de burbuja de cristal donde triunfan los buenos recuerdos. Dice tener idealizada aquella época, en la montaña, en contacto con la naturaleza, con los amigos... Hace poco Xabier tomó como escenario de grabación de una de sus obras el patio de la ikastola. Y es que, en septiembre presentaron en Biarritz un trabajo para espacios no convencionales llamado *Bueltaxka* y en busca de un lugar donde grabar la obra, se acordó de los espacios de la ikastola y tras hablar con el equipo directivo, decidieron realizar la grabación en el campo de fútbol de al lado del frontón. Xabier dice estar muy contento con el resultado.

A los alumnos que desean dedicarse al mundo del arte, Xabier les aconseja que lo intenten. Les invita a conocer muchas disciplinas artísticas como ir al cine, visitar museos, ver cómo se trabaja en los teatros, leer libros... Xabier dice que no es un camino fácil, hay que trabajar mucho, pero si se intenta, asegura que también se puede vivir de ello.

HIZPRO eta DET



Hizpro taldea ikastolan euskara sustatzen duen taldea da. Ikasturte honetan hiru erronka nagusi aurkeztu ditu: etxetara iristea, ikasleen dekalogoia sortzea eta instituzio desberdinekin lan egitea.

Hizpro taldea, es el responsable de incentivar el euskara en la ikastola. Éste curso se ha planteado tres objetivos: llegar más a las familias, crear un decálogo con los/as alumnos y seguir trabajando con diferentes instituciones.



Aurtengo **Eskolako Agenda 2030** programari ilusioz ekin diogu. Agenda 2030 Nazio Batuetako Erakundeak adostutako garapen iraunkorreko 17 helburutan oinarritzen da. Helburu horiek nagusiki mundu mailan pobrezia desagerrarazi, planeta babestu eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko sortu dira.

Aurten 7. helburuari helduko diogu: **ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ KUTSATZAILEA**. 7. helburu horren xedea guztiontzako energia eskuragarria, segurua, jasangarria eta modernoa bermatzea da eta, era berean, iturri berriztagarrietatik datorren energia eta energia-eraginkortasuna handitzea.

Energiak mundua mugiarazten du eta beharrezkoa da egunerokotasuneko edozein ekintza egiteko. Gaur egun, milioika pertsona bizi dira elektrizitaterik gabe, eta munduko biztanleriaren heren batek baino gehiagok erregai kutsatzaileak erabiltzen ditu janaria prestatzeko, haien osasuna asko kaltetuz. Horren harira, aurten aukeratutako leloa, hauxe da:

Energia, bizitzaren motorra!

Ikasturtean zehar, hausnartzeko aukera paregabea dugu. Burutuko diren ekintzen berri izango duzue eta zuen proposamenak ongietorriak izango dira. Animatzen zaituztegu herri jasangarri baten aldeko borrokan bat egitera, inor atzean utzi gabe.

La Agenda 2030 escolar de este curso se centra en el **objetivo 7 para el desarrollo sostenible**. Dicho objetivo, acordado por la ONU, pretende, a corto plazo, garantizar el acceso universal a una energía asequible, segura, sostenible y moderna, para mejorar las condiciones de vida de millones de personas. El lema de la campaña de este año es el siguiente: **La energía, motor de la vida**.

Por todo ello, nuestros ecolíderes os invitan a que participéis con ideas y propuestas en las actividades de este curso y luchemos por un planeta sostenible.

Del mismo modo, os queremos recordar que este año tenemos el reto de renovar nuestro sello de escuela sostenible. Estamos seguros de que, entre todos, lo conseguiremos.



Lehen hezkuntzako ekoliderrak



DBHko ekoliderrak

KONPROMISOAK

ADI LAGUN, EZ AHAZTU IAZ HARTUTAKO KONPROMISOAK!

HH

BILATU, ESPLORATU ETA IKUSI BAI, BAINA PUSKATU EZ.

-
INGURUAN GARBIKETAK EGINGO DITUGU ETA TXUKUN MANTENTZEN SAIATUKO GERA.

LH

GURE INGURUKO BASO, ZELAI ETA LANDAREAK ZAINTEZA.

INGURUMENA HOBETO EZAGUTU AHALIK ETA EGOKIEN ERRESPETATZEKO.

NATURAN DAUDEN BIZIDUNAK ZAINDU.

DBH

IKASTOLAKO ZABORRA JASOTZEKO KANPAINA BAT EGINGO DUGU.

IKASTOLA INGURUAN DAUDEN ESPEZIE INBADITZAILEAK KONTROLATUKO DUGU ETA BERTAKO ESPEZIENGATIK ORDEZKATZEA ESKATU DUGU.

GORA GURE ZELAI ETA LARREAK!



Berriketan

Batzuetan, galdeketa labur bat nahikoa izaten da pertsona bat ezagutzeko. Horixe egin dugu aldizkariko atal berri honetan ikastolako 6 langilerekin. Beren ofizioaz gain, zein afizio dituzten kontatu digute zuk, komunitateko kide, gertuago senti ditzazun.



IGOR REZOLA OLONDRIZ

Igor ikastolako guraso eta HH eta LHko Laguntza Gelako irakaslea da; beraz, ikastolako lehen hiru eraikinetan ikusiko duzu, gora eta behera.

Afizio bat: Mendian ibiltzea.

Musika talde bat: Moonshine Wagon.

Abesti bat: Oroitzen zaitudanean ama (Mikel Laboa).

Liburu bat: Fakirren ahotsa (Arkaitz Cano).

Janari eta edari bana: Gilda eta sagardo.

Oporretarako leku bat: Algarve.

Munduko txoko kuttuna: Cala Estreta (Girona).

Donostiako alkate izango bazina... Loiolako Kuarteletako lursaila berreskuratu eta hiritarrentzako gune berde bat sortuko nuke, Urumea barne.

Zer da Herri Ametsa ikastolatik gehien gustatzen zaizuna? Zalantzarik gabe ikasleak.



JOSU ELOSEGI ALABA

Josuk, ikastolako aita izateaz gain, 25 urte daramatza gorputz hezkuntzako irakasle eta eskolaz kanpoko arduradun gisa.

Afizio bat: Kirola orokorrean. Betidanik mugitua izan naiz eta oso gustura egin dut mugimenduekin zerikusia duen edozein jardura. Zorte handia izan dut nire ogibidea ere izan delako.

Musika talde bat: "Ertzainak", nire gazte garaiko talde mitikoa.

Abesti bat: Elektrizitatea (Zea Mays).

Liburu bat: "Ser feliz en Alaska" (Rafael Santandreu). Lagun batek oparitu zidan. Bizitzako gertaerak era baikor batean ikusteko... Oso aberasgarria izan da niretzat!

Janari eta edari bana: Bixigua labean, baratxuri eta pipermin frijituarekin. Bestetik, garagardoa momentu batzuetarako eta ardo beste batzuetarako...

Oporretarako leku bat: Cadaques (Girona).

Munduko txoko kuttuna: Ez naiz oso urrutira joango: Kontxa badiaren erdian, igeri edo piragua batean...

Donostiako alkate izango bazina... Donostiako auzo guztietan igerilekua duten kiroldegiak eraikiko nituzke, batez ere Txomineko auzoan.

Zer da Herri Ametsa ikastolatik gehien gustatzen zaizuna? Ikastolak duen kokapena, Uli mendian. Oso eskola edo Ikastola gutxik edukiko dute guk ondo-ondoan dugun paraje natural eta polita.



KORO AGIRIANO BARRENETXEA

Orain dela 36 urte Haur Hezkuntzan hasi zen lanean. Hala ere, urte batzuk lehenago, euskal dantzak hurbildu zuen Herrera auzora, ikastola han kokatuta zegoelako, eskolaz kanpoko dantza ematera. Geroztik, Herri Ametsa ikastolan dago.

Afizio bat: Beti euskal dantzaren inguruan ibili naiz.

Musika talde bat: MUGAN. Nire semeak hor jotzen baitu.

Abesti bat: "Zurekin batera" ETSrena. Gainera, Silvio Rodriguezen "Te doy una canción" ere aipatuko nuke.

Liburu bat: "La sonrisa etrusca" Jose Luis Sanpedrorena.

Janari eta edari bana: Legatz-kokotxak ardo zuriarekin.

Oporretarako leku bat: Gironako Cap de Creus.

Munduko txoko kuttuna: Donostiako Kaia, neguko ilunabarretan.

Donostiako alkate izango bazina... Batetik, gazteentzat etxebizitzaren arazoa bideratuko nuke. Bestetik, turismoaren masifikazioa neurtuko nuke. Gainera, euskararen erabilera gogoz eta sakonki aztertuko eta bultzatuko nuke, emaitza duina lortu arte.

Zer da Herri Ametsa ikastolatik gehien gustatzen zaizuna? Bere kokapena zoragarria da eta giza taldea ezin hobea. Gure leloak dioten bezala, "IKASTOLA TXIKIA, FAMILIA HANDIA".



LURDES HERRERO IBARGOIEEN

Jangelako zaintzalea eta guraso ohia da, autobusean ere ibilia. Danborrada-komisioan urte batzuk pasa zituen eta ikastolako "Urrezko danborra" eman zioten: poz izugarria sentitu zuela esan digu.

Afizio bat: Esku lanak, patchwork-a, punta... Beti daukat zeozer esku artean!

Musika talde bat: Denetarik entzuten dut, momentuaren arabera, hainbat musika mota entzuten dut: Fito, Bruce Springsteen, Imanol... Gospela ere oso gustukoa dut.

Abesti bat: Mendian gora.

Liburu bat: Ibon Martinenak edo Totirenak.

Janari eta edari bana: Jatuna naiz, edozein janarirekin disfrutatzen dut; adibidez, patata tortilla piper batzurekin eta, edateko, ardo on bat.

Oporretarako leku bat: Ez daukat leku finko bat oporretara joateko, aldatzea gustatzen zait, leku desberdinak ezagutzeko.

Munduko txoko kuttuna: Mendiola, zailantzarik gabe.

Donostiako alkate izango bazina... Honi erantzuteko lagun batzuei laguntza eskatu nien eta erantzuna hau izan zen: *topoa ospitalera iristea*. Oso lagungarria izango litzateke pertsona askorentzat.

Zer da Herri Ametsa ikastolatik gehien gustatzen zaizuna? Tokia aparta da! Ikasleek daukaten tokia kirola egiteko: frontoia, futbol zelaiak... Baina, batez ere, Mendi Txiki.



NEREA GOIKOETXEA GASTESI

Euskal Dantza irakasten hasi zen Herri Ametsa dantza-taldean 20 urte zituela eta ordutik dabil ikastolan. Orain, LHko 1. mailako tutorea da eta koordinatzaile lanetan dabil. Horrez gain, Ikastolako jaiaz arduratzen den taldeko partaidea ere bada.

Afizio bat: Mendian eta itsas-bazterrean paseatzea.

Musika talde bat: Ruper Ordorika.

Abesti bat: Zea Mays-en Elektrizitatea.

Liburu bat: Ibon Martinezen Isiltasunaren itsasargia.

Janari eta edari bana: Sagardotegiko txuleta on bat eta garagardoa.

Oporretarako leku bat: Itsasertzean dagoen edozein herri.

Munduko txoko kuttuna: Isaba.

Donostiako alkate izango bazina... Urte dezente da Donostian bizi ez naizela, baina bertako alkate izango banintz, Donostia donostiarrago egiten saiatuko nintzateke.

Zer da Herri Ametsa ikastolatik gehien gustatzen zaizuna? Ikasle, langile eta familien gertuko harremana.



XABIER AMILIBIA

Xabier Herri Ametsa familiako partaidea da (aita, irakaslea, ikasketa Burua). Bere lana Zuzendaritza Taldearekin batera Ikastolako bizitza koordinatzea, kudeatzea eta, lankideekin batera, gure gazteen bidelagun izatea da.

Afizio bat: Kirola, Historiaurrea...

Musika talde bat: Taldeak baino musikariak nahiago. Hautaketa zaila John Denver, Joan Manuel Serrat, Bruce Springsteen, Benito Lertxundi...

Abesti bat: Askok. Ezin izango nuke bat hautatu, garaia eta egoeraren arabera aukeratzen dut. Abestiek, bizitzak bezala, haien "musika" dute.

Liburu bat: Askok... Tolstoyren "Resurrección" edo Arantza Iturberen "Koaderno Zuri", adibidez.

Janari eta edari bana: Lanpernak eta xanpaina, baina beti norbaitekin ondoan.

Oporretarako leku bat: Bierge, Huescan.

Munduko txoko kuttuna: Maite dudan jendearekin goza dezakedan edozein.

Donostiako alkate izango bazina... jendearen bizitza hobetzen saiatuko nintzateke.

Zer da Herri Ametsa ikastolatik gehien gustatzen zaizuna? Ingurua (mendia, itsasoa) eta nire lana gelan ikasleekin.

Gure ikasleak

EUSKALGYM 2022 //

Urriaren 29 eta 30ean, Euskalgym Txapelketak 1600 gimnastatik gora bildu zituen BECen. Gimnastika artistikoa maite dutenek estatuko klubik onenen saioak ikusteko parada izan zuten, izan ere, lehen kategoriako 18 elkartetik 13 izan ziren Barakaldon.

Urtero ospatzen den ekitaldiari larunbatean eman zitzaion hasiera, Euskal Selektzioaren debutarekin. Portugalen aurkako saioa izan zen, hain zuzen, Euskal Selektzioaren lehen nazioarteko parte-hartzea. Bertakoek irabazi zuten, haien artean, ikastolako ikasle ohi den Noa Guedesek.

Gure ikasleei dagokionez, Ikastolako DBHko lau gimnasta izan ziren bertan, igandean: Maddi Rico eta Nerea García haur kategorian eta June Marchán eta Maya Civantos kadete kategorian. Nerea eta June Donosti Klubeko kide dira; Maddi eta Maya, berriz, Izar Leku klubekoak.

Gustura aritu ziren arren, laurek adierazi digute oso urduri zeudela topaketaren aurretik, ia lorik ezin eginda. Aparatuekin aritzen dira: maza, pilota eta zintekin. Diotenez, oso zaila da guztia hutsik edo akatsik gabe egitea. Hala ere, txapelketa honetara, lehiatzera baino, ondo pasatzera, gozatzera eta gainerako kideen lana ikustera joan zirela azpimarratu digute. Bereziki interesgarria iruditzen zaie Errusiatik etorritako Dina Averina eta Arina Averina ahizpa bikiak ikusteko aukera izatea. Era berean, parada ezin hobea omen da BECeko ondoren etorriko den Espainiako Txapelketarako prestatzeko.

Zorionik beroenak hirurei egindako lanagatik!



Queremos felicitar a nuestras gimnastas de la ESO por su participación en las jornadas Euskalgym 2022, que reunieron a más de 1600 gimnastas en el BEC de Barakaldo los días 30 y 31 de octubre: Maddi Rico, Nerea García, June Marchán y Maya Civantos. Las cuatro compartieron nervios, pero mucha ilusión. Aunque las jornadas no salieron como ellas hubieran querido, ya que es muy difícil que todo salga perfecto, disfrutaron y pudieron aprender de todas las compañeras y compañeros que participaron. ZORIONAK!

Lettering: el arte de dibujar letras

Parece que esta disciplina gana adeptos cada día que pasa. Tenemos entre nosotros a varios alumnos y alumnas que practican el "lettering", actividad que consiste en escribir o dibujar en varios estilos las letras del alfabeto. Para ello las chicas y chicos nos cuentan que emplean material específico y que depuran su técnica tanto yendo a clases particulares como viendo videos en internet. Por supuesto, recalcan la importancia de los gestos de la mano y de la muñeca para obtener buenos resultados.

LETTERING: letrak marrazteko artea //

Azkenaldian, gure ikasleen artean, sarri entzuten dugu "lettering" egiten aritzen direla, baina zertan datza zaletasunak? Ingelesetik datorren hitzak kaligrafia sortzaileari egiten dio erreferentzia, hau da, alfabetoko letrak estilo berezian idatzi edo marrazteari, eta testu bidezko mezua modu sortzailean transmititzea du helburu. Egun, sarri, publizitatean markak sortzeko erabiltzen den baliabidea da.

Gure ikasleen arabera, teknika ikasteko hainbat modu daude: etxean egin daiteke, bideoak ikusiz edo liburuak erabiliz, baina badira marrazketa-akademiara joaten direnak ere. Diotenez, ezinbestekoa da material egokia izatea: boli-grafoak (punta fin zein lodidunak), errotulagailuak (ohikoak edota pintzel itxurakoak), koloretako arkatzezko margoak, eta abar, guztiak kalitate onekoak, lan eroso egin ahal izateko.

Bestetik, ikasleek adierazi digutenez, kaligrafia sortzailean trebatzeko badira oinarrizko arauak. Batetik, eskuarekin egiten den indarra kontrolatu egin behar da, baina eskumuturra libre utziz. Erabiltzen den inklinazioa ere aldakorra da, lortu nahi den efektuaren arabera, etzanago edo zuzenago hartu beharko baita idazteko darabilgun tresna. Gainera, azpimarratu digute oso garrantzitsua dela materiala ondo zaintzea eta txukuna izatea.

Hona hemen gure ikasleek erakutsi dizkiguten lan ederrak!



JON MASACH PEINOK //

“Nik dakidala, bizilagunak ez dira inoiz kexatu.”

Izan ere, Jon Masach Peinok perkusio-instrumentuak jotzen ditu. Bere gurasoak musikariak dira eta, 2008ko irailaren 29an jaio zenetik, musika bere bizitzaren zati garrantzitsu izan da. Egiten ari den ibilbidearen berri eman digu eskaini digun elkarrizketan.

Jon, perkusionista zara. Zer instrumentu jotzen duzu?

Bateria, xilofonoa, marinba, tinbalak, triangelua, *shaker* delakoa, marakak... Baina bereziki bateria gustatzen zait, harekin hasi bainintzen txikia nintzela. Hala ere, xilofonoa eta marinba, esaterako, oso gustuko ditut, desberdinak direlako.

Gurasoak musikariak dituzenez, txiki-txikitatik duzu musikarekin lotura.

Bai, jaio nintzenetik izan dut musika ondoan. Aita, Alfonso, tronpeta-irakaslea da eta, amak, berriz, biola jotzen irakasten du. Gurasoen aldetik beti sentitu dut musikarekiko hurbiltasuna eta beti animatu izan naute musika maitatu eta bizitzera.

Zein izan da zure ibilbidea musikan?

4 edo 5 urte nituela argi neukan bateria gustatzen zitzaidala



eta, horregatik, gurasoek erabaki zuten irakasle bat hartu eta harekin banakako klaseak jasotzeko aukera ematea. Halaxe aritu nintzen hiruzpalau urtez. Ondoren, 8 urte nituela, Musika Eskolan eman nuen izena. Duela bi urte, gehiago ikasi nahi nuela erabakita, kontserbatorioan hasi nintzen. Egun, oinarrizko ikastaroak eginda, maila profesionalean ari naiz. Iaz proba bat egin behar izan nuen mailaz igotzeko eta, zaila ez izan arren, nahikoa lan egin behar izan nuen eta asko ikasi.

Nola bateratzen dituzu musika-ikasketak zure eguneroko jardunarekin?

Argi daukat lehentasuna ikastolako lanak daukala, garrantzitsuena da. Horixe egiten dut lehenik etxera iristen naizenean, egunero. Kontserbatoriora astean 3 egunetan joaten naiz, 6 orduz guztira. Horrez gain, nire kabuz ere joan naiz ikastera. Asteburuetan, bertan egoten naizenez, Debako bandan ere jotzen dut. Entseguak ostiraletan izaten dira eta ordu eta erdiz aritzen gara. Bestetik, berriki, Donostiako konbo batean jotzeko eman dut izena eta horretan ere ari naiz.

Barkatu ezjakintasuna, Jon. Zer da konbo bat?

Konbo bat musika-banda txiki baten modukoa da, non musika estilo desberdinak jotzen diren. Bi tronpetak, bi tronboik, bi saxofoik, abeslariak, baxu elektrikoak, gitarrak eta pianoak osatzen dute; talde txiki bat da.

Bizilagunek zer esaten dute perkusioa gustuko duen mutikoari buruz?

Kar-kar! Nik dakidala, bizilagunak ez dira inoiz kexatu. Bateria elektrikoak daukat etxean, txikiagoa dena, kaskoekin jotzen den horietakoa, bai, bizilagunak ez gogaitzeko. Bestetik, irakasleak xilofonoa utzi zidan eta hura ere etxean dut. Horrez gain, kaxa gor bat daukat, barrubiguna, burrunba handirik ez sortzeko.

Bukatzeko, Jon, zer esan diezagukezu etorkizunerako dituzun asmoei buruz? Musikarekin lotuta ikusten al duzu zure burua epe luzera?

Egia esan, ez dut epe luzean pentsatzen. Oraingoan, ikasten jarraituko dut. Kontserbatorioiko ikasketak amaitu nahi ditut, pixkanaka, oraindik urte batzuk falta zaizkit. Ondoren, gerta liteke irakasle izatea edo orkestra batean jotzea, batek daki. Oraindik goiz da erabakitzeko.

Eskerrik asko, Jon. Onena opa dizugu etorkizunerako!

Jon Masach Peino, nuestro alumno de 3º de ESO, siempre ha estado ligado a la música. Sus madre y su padre son músicos (Mónica es profesora de viola y Alfonso de trompeta), por lo que desde bien pequeño le han enseñado a querer y vivir la música.

Cuenta que con 4 o 5 años ya sabía que quería tocar la batería. Empezó a recibir clases particulares hasta que con 8 años se apuntó en la Escuela de Música. Hace dos años empezó su andadura en el Conservatorio, donde el año pasado, tras hacer un examen, logró llegar al nivel profesional.

Es percusionista. Le gusta tocar la batería, pero también el xilófono, la marimba, los timbales, el triángulo, el *shaker*, las maracas... En casa tiene una batería eléctrica, un xilófono y una caja sorda, acolchada, de las que no hace mucho ruido, por lo que cree que sus vecinos nunca se han quejado.

Prioriza los estudios de secundaria, aunque pasa mucho tiempo en sus clases del Conservatorio y tocando tanto con la Banda Municipal de Deba como en un combo.

En cuanto al futuro, dice querer ir paso a paso. Por ahora, está contento y quiere acabar su formación en el Conservatorio. No le disgustaría trabajar como profesor o tocar en una orquesta, pero no tiene planes a largo plazo. Por supuesto, le deseamos lo mejor.

Geletako argazkiak



Haur Hezkuntza





Haur Hezkuntza





Haur Hezkuntza





5

Haur Hezkuntza

Lehen Hezkuntza



1A



1B

Lehen Hezkuntza



2A



Lehen Hezkuntza





Lehen Hezkuntza





Lehen Hezkuntza





5B

Lehen Hezkuntza



6A



Lehen Hezkuntza

Gautena





DBH





DBH





DBH





4A

DBH



4B

Ikastolako langileak



Haur Hezkuntzako irakasleak



DBHko irakasleak



LHko irakasleak



Gautenako irakasleak



Orientazio departamendua



Hezkuntza bereziko laguntzaileak



Autobusetakoak



Mantenu eta garbitasunekoak



Jangelakoak



Idazkaritzakoak



Gestio batzordea



Zuzendaritza taldea

Zer berri?

Altzako II. Haur eta Gazteen bertso-paper lehiaketa

2022. edizioko irabazleak gure lau ikasle izan ziren: A sailean, LH mailan, alegia, Hiart Crespo Aizkorreta eta Nerea García Beristain. B sailean, berriz, DBHko Danae Laumon Romero eta Aiert Valdivia Martínez. Zorionik beroenak laukoteari!



Cuatro de nuestros alumnos ganaron la segunda edición del concurso de bertso de Alza. ¡Felicidades a Hiart, Nerea, Danae y Aiert!

Aiert Valdivia Martínez
LANPETUTA NAGO
Doinua: Behin batian Loiolan

1. *Etixerako hainbeste lan jartzen didate: euskara, gaztelera, tekno eta mate. Plastikako proiektu neketsuaz aparte. Lanak ta lanak daude hiltzen garen arte.*
2. *Azterketa, kontrola, froga eta lana. Guztietan ugari sartzen da; ai, ama! Niretzako gehiegi izango da dana. Bihotzez espero dut hamarreko bana!*

Danae Laumon Romero
LANPETUTA NAGO
Doinua: Orioko balearena

1. *Etixerako hainbeste lan jartzen didate: gaiak aspergarriak, batez ere mate. Musika eta harpa izan dut aparte. Kalera ezin irten dena amaitu arte.*
2. *Ikasgelan izan dut hainbeste azalpen. Gogotik desio dut hemendikan irten. Kontrola entregatzen izango naiz azken. Gau osoa daramat hau buruz ikasten!*

Hiart Crespo Aizkorreta
OPORRAK
Doinua: Ama begira zazu

1. *Udara iristeko irrikaz al zaude? Oporrak dira onena, denok ados gaude.*
2. *Joango al zara udan zu, ba, hondartzara? Desiatzen ari naiz iristeko hara.*
3. *Emango duzu aurten buelta bizikletan? Ba, nik, egia esanda, ez dut nahi benetan.*
4. *Bost izarreko hotela edota kanpina? Hori ez zait axola, niretzat berdina.*

Nerea García Beristain
OPORRAK
Doinua: Ama begira zazu

1. *Udara iristeko irrikaz al zaude? Nire lagunak ta ni irrikaz bai gaude.*
2. *Eta udara honetan goaz hondartzara, ere goaz herrira aitonekin hara.*
3. *Herrian gaudenean goaz bizikletan, orduan uretara nijoa benetan.*
4. *Gauetan lagunekin afaltzera goaz, goizean esnatzean mendira igoaz.*

Book Trailer Lehiaketako irabazleak

2021-2022 ikasturteko Liburu Gaztea book-trailer lehiaketaren irabazlea DBH 1-2 kategorian, Herri Ametsa Ikastolako PIZZA TALDEA izan zen. Taldekideak Eñaut Vicente, Maia Zubeldia, Lara Sánchez eta Alex Torrecilla dira.

Epaileek honako azpimarratu zuten gure ikasleen lanaren inguruan: "Argumentuaren azalpen eta antzezenak bikainak dira, oso ongi kontatua eta kokatua dago istorioa. Teknikoki zaindua, plano ederrak, karakterizazioa ere ona. Gozatu dutela nabari da eta horrek, ikusleari, irakurtzeko gogoia pizten dio".

Esteka honetan ikus dezakezue trailerra:

https://www.youtube.com/watch?v=W9WV_8X5nxk



AURTENGO TXAPELKETA

ZER EGIN DEZAKEGU
IKASTOLAN ENERGIA
GEHIAGO AURREZTEKO?


IDEIA ORIGINALENARI SARIA!
ANIMATU!!



Bidali zure proposamena
herriametsaaldizkaria@herriametsa.com
helbidera

Ikastolako espazio berriak

Klaseak kanpoan emateko aukera dugu orain!



Ikastolako txikienek ere zentzumen ezberdinak sentitu, garatu eta bizi dituzte parke berrian.



Ikastolako festa komisiaoa



Amaya Morente: Gozamina da gurasoen partehartzea ikustea. Lehenengo momentuako urduritasunak eta festa eguneko giro alaia.

Yo participo en la fiesta de la ikastola porque desde la primera reunión para empezar a organizarla, todo es una gozada. Todo se hace desde el cariño y para el disfrute de todos/as. La emoción de la primera vez que los padres/madres colaboran, ¡me encanta!. Están nerviosos y con ganas.

Estas últimas fiestas han sido con muchos cambios, sobre todo en el tema de la comida, y es donde se ha visto una implicación total de los voluntarios. La mayoría de las personas que colaboran por primera vez, acaban el turno diciendo que no se esperaban pasarlo tan bien y que el año que viene si hace falta repiten.

Y por esto y por mucho más mucho más es por lo que participo.



Irakasleak: Ikasturte osoan zehar lan egin eta gero, festa giroan bukatzea gauza ederra da.

"Ikastolako festa" es una forma estu-penda de dar el broche final a cada curso.



Ander Garmendia: Nire semea LH5.mailan zegoela, festa antolatzea tokatu zitzaigun eta nik, tabernako egin beharrak egiten egon nintzen. Oso gustura aritu nintzen. Geroztik, tabernako ardura eraman dut. Hau ere oso pozik. Momentu batean testigua hartu nuen ondoren beste batek hartuko duen moduan.

Cuando mi hijo mayor estuvo en 5º nos tocó preparar la fiesta de la ikastola. Lo hice con gusto y además lo seguí haciendo desde entonces. Tomé el testigo es su momento y espero pasarlo para que siga la fiesta.



Sukaldariak: Izan zirelako gara.

Estamos aquí porque una vez empezaron y queremos continuar su labor.

Koldo Mitxelena literatura lehiaketa

lazko edizioan ere ikastolako ordezkaritza izan genuen sarituen artean. Jurgi Postigo Alzugarai izan zen sardiduna bertso-sailean "Espazioa" lanarekin. "Euri kosmikoa" komiki ederra marraztuta, Hiart Crespo Aizkorretak jaso zuen saria. Horiei ere zorionak bihotzez!

Felicidades a Hiart y Jurgi por sus galardonados trabajos en el prestigioso concurso anual Koldo Mitxelena.



Jurgi Postigo Alzugarai ESPAZIOA

Doinua: Ama begira ezazu

Zerua begiratzen
pasa dut denbora,
eta izarren artean
sortzen da aurora.

Eguzkitik gertuen
planeta Merkurio,
eguzkiari bezala
bai kea dario.

Hartz handia ikusi dut
txikiaren ondoan,
izarrek diz-diz daude
espazio osoan.

Esne-bidea da gure
galaxia handia,
izarrez beteriko
herri handi txikia.

Zein ote da ba zure
zodiako-zeinua,
guztiak aurkitzeko
ikusi zerua.

Ipar poloan dago
aurora boreala,
gorputza mugitzen du
gortinak bezala.

IZENBURUA: Euri Kosmikoa IZENGOITIA: ZUBI LEHIAKETA MOTA: Komiki KATEGORIA: C





Badatoz Olentzero eta Mari Domingi!

*Aurten berriro ere abenduaren 24an auzoz auzo
ibiliko gara haiekin batera.
Zatozte gurekin ospatzera!*



KOMIKIAK

IKASTOLARA NOA.

NOIZ JOKO OTE DU KANPAIAK?

KANPAIAK JO ETA EIDER JANGELARA JOAN ZEN.

JANARI HAU EZ ZAIT BATERE GUSTATZEN.

EIDER JANGELATIK ATERA ETA JOLAS TOKIRA JOAN ZEN.

ZERGATIK OTE DABIL HORRENBESTE JENDE HOR?

ZEINEN EDERRA!

A ZE NAZKA!

ZER DA HORI?

HONTZA!

AZKENEAN, IKASTOLAKO IRAKASLEEK HONTZA KANPORA ATERATZEA LORTU ZUTEN ETA NORMALTASUNERA ITZULI GINEN.

A ZE EGUNA GAURKOA!

Create your own at Storyboard That

Gaur Txuri Urdinera joango gara patinatzerara.

Patinatzera joan nahi dut!

Urduri nago!

Ni ere bai!!

Hasiera batean, ez nekien patinatzen eta...beste batzuek...ere ez.

Azkenean, patinatzen ikasi dut.

Oso ondo!!

Gustatu zaizu Txuri Urdina?? Niri bai!

Niri ere!!

Oso pozik joan nintzen etxera. Berriz joango nintzateke Txuri Urdinera.





















Herri Ametsa Ikastola

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata Bidea, 28

20016 **DONOSTIA**

Tel.: 943 39 35 20 - 943 39 24 21

Fax: 943 40 40 90

Emaila: herriam@ikastola.eus

www.herriametsa.eus



Herri Ametsa
Ikastola

KEI



Eskola
Jasangarria
Ziurtagiria



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxea